

Gure zerbitzura matrikulatu ahal izateko, aste beteko aurrerapenarekin abisatu beharko da. Hileroko kuota 256 eurokoa izango da, eta hortik materiala erosiko dugu, txokoa alokatuko dugu, autobusaren alokairua ordaindu eta soberan dagoena, gure irabaziak izango dira.

Familiaren batek, haur bat baino gehiago apuntatu nahi badu, eskaintza bereziak egingo dira. Bi haur apuntatuz gero, 230 eurotara jaitsiko da hilabeteko kuota haur bakoitzeko. Bi haur baino gehiago apuntatu nahi izanez gero, hileroko kuota hau murriztuko da 200 eurotara haur bakoitzeko.

Kuota murrizketa hauek txangoak zein irteerak egingo ditugun hilabete berezietan ere emango dira. Hilabete hauetan 300 euro ordaindu behar dira hilabetean, baina bi haur apuntatuz gero, 276 eurotara jaitsiko da. Bi haur baino gehiago matrikulatzen badituzte 240 eurotara jaitsiko da. Horrela erraztasuna emango diegu alde ekonomikotik.

Ibilaldi berezi bat egiten dugunean (kanpo enpresa batek gidatutako ekintzak direnean) kuota igo egingo da zerbitzu hauek ordaindu ahal izateko. Kuota hau 300 eurotara igoko da eta familiei abisatuko zaie nahi duten edo ez jakiteko. Hilabete berezietan uko eginez gero, haurrak normaltasunez joango dira egunerokotasuneko jarduerak egitera.

Haurra gehienez astean hiru egunetara apuntatu daiteke. Egun gehiagotan apuntatu nahi izanez gero, kuota handiagoa izango da. Egun bakoitzeko 20 euro gehiago ordaindu beharko dute, baina haur bi apuntatzen badira 10 eurotara jaitsiko da, hau da, kuota arruntagaitik (20 euro) bi haurrena ordaindu ahal izango luke. Bii haur baino gehiago apuntatuz gero, haur eta egun bakoitzeko gehigarria 5 euro izango litzateke..

Taula honetan aurretik azaldutako laburpena ikusi daiteke:

| | Haur bat familiako | Haur bi familiako | Haur bi baino gehiago | |
|-----------------------|--------------------|-------------------|-----------------------|------------------------------------|
| Hileroko kuota | 256 | 230 | 200 | Haur bakoitzeko |
| Hilabete berezietan | 300 | 276 | 240 | Haur bakoitzeko |
| Hiru egunetik gorakoa | +20 | +10 | +5 | Egun gehigarri eta haur bakoitzeko |